

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

**ARAUA MOLDATZEKO PROPOSAMENA, EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA,
TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN
ZERGA ORDENANTZARI**

EH Bildu udal taldeak aztertzeko aurkezten du araua aldatzeko ondoko proposamena:

2021ean, tokiko entitateek aparteko hobariak onartu ahal izango dituzte Gipuzkoako Toki Entitateei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak II. tituluaren III. kapituluaren 3. sekzioan jasotakoari jarraituz ezarrita dauden udal tasen zenbatekoaren gainean. Hobari horiek jasotzeko arrazoiak COVID-19aren osasun krisiarekin lotuta egon behar dira, eta krisi horrek bereziki eragindako kolektiboek aplikatu ahal izango zaie. Hobarien ondorioek 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzera eragina izan dezakete.

Hau jasotzen du orain ordenantzak, 10. artikuluan - Hobariak

4.-

a) % 40eko hobaria bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularra familiako kide bat bada, familia hori izaera orokorreko familia ugarizat hartzen denean indarrean dagoen legeriaren arabera.

EH Bilduren proposamena:

4.-

a) 2021ean, % 40eko hobaria bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularra familiako kide bat bada, familia hori izaera orokorreko familia ugarizat edo familia gurasobakartzat hartzen denean indarrean dagoen legeriaren arabera.

Donostian, 2021eko abuztuaren 3an.

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea